



323/2022 Ebazpena, martxoaren 29koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariarena. Honen bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web-orrian argitaratzeko agintzen dira aldi baterako kontrataziorako eguneratutako zerrendak, bakanteen eta ordezkapenen zerrenden modalitateetan (2014ko aldi baterako kontratazio zerrendak indarrean dauden kategorietan).

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoko Administrazio Kontseiluaren 2011ko maiatzaren 9ko Erabakiaren bitartez (EHAA, 106. zk, 2011ko ekainaren 6koa), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan aldi baterako kontratazio zerrendak, 2008ko Enplegu Publikoaren Eskaintzatik datozenak, egin eta kudeatzea arautzen da.

2011ko maiatzaren 9ko Erabakiaren 10.4. atalaren arabera, urtero lehen lauhilekoan eguneratutako dira. Alde batetik, sartuko dira Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan dagokion kontratazio-zerrendako kategorian aurreko urtean dagokion kategorian emandako esperientzia profesionala. Bestalde, ezarriko den epean aurkeztutako hizkuntza-eskakizunak ere sartuko dira, erabaki honen 4. atalean aurreikusitakoari jarraiturik. Hori dela-eta,

EBATZI DUT:

Lehena.- Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web-orrian argitaratzeko agintzea 2014ko aldi baterako kontrataziorako eguneratutako zerrendak, bakanteen eta ordezkapenen zerrenden modalitateetan, indarrean dauden kategoriei dagokienez.

2022ko martxoaren 30ean indarrean sartuko dira zerrenda eguneratuak.

Bigarrena.- Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2022ko martxoaren 29an.


Luisa Larrauri Ereñozaga
GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA
DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS

OSAKIDETZAKO GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIA